

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
OSPITALEETAKO ALTEN
ERREGISTROAREN TXOSTENA**

**INFORME DEL REGISTRO DE
ALTAS HOSPITALIARIAS DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO**

2013



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

2014ko Azaroa / Noviembre 2014

Erregistroetako eta Osasun-informazioko Zerbitzua. Plangintza, Anolamendu eta
Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila
Servicio de Registros e Información Sanitaria. Dirección de Planificación,
Ordenación y Evaluación Sanitaria. Departamento de Salud

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	5RESUMEN EJECUTIVO
SARRERA	7INTRODUCCIÓN
MATERIALAK ETA METODOAK.....	8MATERIALES Y MÉTODOS
EMAITZAK.....	11RESULTADOS
1. Datu orokorrak.....	111. Datos generales
2. Akutuen ospitaleak.....	142. Hospitales de agudos
2.1. Ospitaleratze arrunta.....	14	2.1 Hospitalización convencional
2.2. Kirurgia handia ambulatorioa.	202.2 Cirugía mayor ambulatoria
3. Egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleak.....	213. Hospitales de media-larga estancia
TAULAK.....	25 TABLAS
BIBLIOGRAFIA.....	56BIBLIOGRAFÍA
ESKER ONAK.....	56AGRADECIMIENTOS
ERANSKINA.....	57ANEXO

-Adierazitako alta-hartzeak: 2013an, guztira, 322.058 alta hartu dira, ospitale publiko zein pribatuak kontuan hartuta. 2012ko kopuruaren oso antzekoa da, % 0,7 altuagoa, eta aurreikusitako 4 urteen batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa –% 1,5–; horrek erakusten digu 2011tik aurrera zenbait prozesu ambulatorio gutxiago adierazi direla. Izandako alta guztietatik, % 77,9 ospitale publikoei dagozkie, eta % 22,1 pribatuei.

-Egonaldi ertaina: akutuen ospitaleetan ospitalizazio arruntetan izandako batez bestekoa 5,8 egun izan dira. Sare publikoan 6,2 egun izan da egonaldia, pribatuan baino nabarmen luzeagoa, han 4,3 egun izan baitira ($p < 0,001$). Aldea ere nabarmendu da ospitalizatutako pertsonen adinean, 57,9 eta 56,4 urte izan baitira ospitale publikoetan eta pribatuetan, hurrenez hurren ($p < 0,001$).

- Ospitalizazio-tasa: 84,3 izan da altakopurua 1.000 biztanleko EAEn, Osakidetzaren ospitaleetako alta hartze konbentzionalak aintzat hartuta. Aldeak daudela ikusi da lurralde historikoaren arabera: Arabak du tasarik altuena (98,7) eta Bizkaiak baxuena (77,2).

- Ospitalizatzeko arrazoiak: akutuen ospitale publikoetan ospitalizazio arrunterako arrazoi nagusia izan da «bihotz-gutxiegitasuna» (4.873 alta; bertako alta guztien % 2,6). Ospitale pribatuetan, berriz, «belaun barneko arazoa» (2.027 alta; guztien % 5,0).

- Lehenengo prozedura kirurgikoa: akutuen ospitale publikoetako ospitalizazio arruntean, «erditzeari

- Altas declaradas: en 2013 el número total ha sido de 322.058, incluyendo hospitales públicos y privados. Esta cifra es muy similar a la del año 2012, incremento del 0,7%; y algo inferior, 1,5 %, a la media de los 4 años previos, reflejo de la disminución en la declaración de algunos procesos ambulatorios a partir de 2011.

El 77,9%, del total de altas registradas, corresponden a los hospitales públicos y el 22,1% a los hospitales privados.

- Estancia media: la obtenida en hospitalización convencional, en los hospitales de agudos, ha sido de 5,8 días. En el caso de la red pública esta estancia ha sido de 6,2 días, significativamente más alta ($p < 0,001$) a la de la privada, 4,3 días. Estas diferencias también se han observado en la edad de las personas hospitalizadas 57,9 y 56,4 años ($p < 0,001$) en los hospitales públicos y privados, respectivamente.

- Tasa de hospitalización: el número de altas por 1.000 habitantes de la CAE, considerando las convencionales en los hospitales de Osakidetza, ha sido de 84,3. Se observan diferencias entre los Territorios Históricos, presentando Álava la mayor tasa (98,7) y Bizkaia la menor (77,2).

- Causas de hospitalización: en los hospitales públicos de agudos la principal causas de hospitalización convencional ha sido la “insuficiencia cardíaca” (4.873 altas, el 2,6% del total de sus altas); en el caso de los hospitales privados el “trastorno interno de rodilla” (2.027 altas, 5,0%).

- Primer procedimiento quirúrgico: en hospitalización convencional en los hospitales públicos de agudos el

laguntzeko beste prozedura batzuk» izan zen prozedura ohikoena (10.631 alta; % 5,7), emakumeen kasuan, eta «iztai-hernia eta hernia femorala konpontzea» (2.134 alta; % 1,1) gizonen kasuan. Ospitale pribatuetan, berriz, maizen izan den lehenengo prozedura kirurgikoa «erditzeari laguntzeko beste prozedura batzuk» izan zen (1.145 alta; % 2,8), emakumeen kasuan, eta «artroskopia» (1.375 alta; % 3,4) gizonen kasuan.

Kirurgia handi ambulatorioan «kristalinoaren eta kataraten gaineko prozedurak» izan da prozedura ohikoena, bai ospitale publikoetan bai pribatuetan eta bai gizonetan eta emakumeetan ere; 19.974 (% 37,6) eta 3.006 (% 12,2) alta izan dira, hurrenez hurren, bi ospitale-mota horietan.

- **POA (ospitaleratze-uneko diagnostikoa) adierazlearen betetzea** % 100 izan da akutuen ospitale publikoetan eta % 88,9 pribatuetan. Azken horietan aldagai horren betetze-maila oso heterogeneoa da; izan ere, 12 ospitaletan kasuen % 100 izan da betetze-maila, hirutan % 0 eta, beste hirutan % 85-90 artean. Azken ospitale-mota horietan, guztiek ez dute informazio-mota bera eman, eta ehunekoa ere oso aldakorra izan da ospitale batetik bestera, alegia, «zalantzazko edo ezezaguneko» POA % 0 eta % 100 artekoa da. Ospitaleen arteko aldakortasun horrek esaten digu, aurreko txostenetan ere esan dugunez, aldagai hori jasotzeko estandarrak hobetu behar direla.

procedimiento más frecuente ha sido “otros procedimientos para ayudar al parto” (10.631 altas, 5,7%) en el caso de las mujeres; y la “reparación de hernia inguinal y femoral” (2.134 altas, 1,1%) en el caso de los hombres. En los hospitales privados, el primer procedimiento quirúrgico más frecuente ha sido “otros procedimientos para ayudar al parto” (1.145 altas, 2,8%) en el caso de las mujeres; y la “artroscopia” (1.375 altas, 3,4%) en el caso de los hombres.

En cirugía mayor ambulatoria los procedimientos más frecuentes, tanto en hospitales públicos y privados, como en hombres y mujeres han sido los ‘procedimientos sobre cristalino y cataratas’, con 19.974 (37,6%) y 3.006 (12,2%) altas, respectivamente, en ambos tipos de hospitales.

- **Cumplimentación del indicador POA** (diagnóstico presente al ingreso) ha sido del 100% en los hospitales de agudos públicos y del 88,9% en los privados. En estos últimos la cumplimentación de esta variable es muy heterogénea; en 12 hospitales se realiza en 100% de los casos, en 3 el 0% y otros tres entre el 85-90%. En este último tipo de hospitales también es muy variable la tipología de la información aportada, con un porcentaje muy variable entre hospitales, entre el 0 y el 100% de POA “dudoso o desconocido”. Esta variabilidad entre hospitales incide en la necesidad, señalada en informes previos, de mejorar la estandarización de la recogida de esta variable.

Txosten honetan, Ospitaleetako Alten Erregistroari¹ (OAE) 2013an emandako datuak jaso ditugu; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ospitale publikoek (Osakidetzako sarekoek) eta pribatuek emandakoak, ospitale psikiatrikoetakoak izan ezik.

Osasun Sailak kudeatzen du Ospitaleetako Alten Erregistroa; bertan, paziente bakoitzaren Ospitaleetako Alten Datuen Oinarrizko Bilduma osatzen duten aldagai klinikoak, demografikoak eta administratiboak jasotzen dira, arauen bidez xedatutako moduan^{2,3}.

El informe recoge los datos declarados al Registro de Altas Hospitalarias¹ (RAH), correspondientes al año 2013, y realizadas por los hospitales públicos (red de Osakidetza) y privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV), a excepción de los hospitales siquiátricos.

El RAH es un registro gestionado por el Departamento de Salud; y contiene el conjunto de variables clínicas, demográficas y administrativas, establecidos normativamente^{2,3}, que constituyen el Conjunto Mínimo de Datos del Alta Hospitalaria (CMBD) de cada paciente.

¹ 303/1992 DEKRETUA, azaroaren 3koa, ospitaleetako alden datuen gutxieneko oinarrizko bilduma arautzen duena eta Euskadiko Ospitaleetako Alten Erregistroa sortzen duena. DECRETO 303/1992, de 3 de noviembre, por el que se regula el conjunto mínimo básico de datos del Alta Hospitalaria y se crea el registro de Altas Hospitalarias de Euskadi

² EBAZPENA, 1993ko ekainaren 15ekoa, Osasuneko sailburuordearena, Euskadiko Ospitaleetako Alten Erregistroko Datuen Gutxieneko Oinarrizko Bilduma osatuko duten aldagaien betekizunei buruzkoa. RESOLUCION de 15 de junio de 1993, del Viceconsejero de Sanidad, sobre los requisitos de las variables que van a constituir el Conjunto Mínimo Básico de Datos del Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi.

³ AGINDUA, 2010eko irailaren 3koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Ospitaleetako Altaren xehetasunen oinarrizko gutxieneko bildumari aldagai gehiago sartzeko dena. ORDEN de 3 de septiembre de 2010, del Consejero de Sanidad y Consumo, por la que se incorporan nuevas variables al conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria.

Txosten honetan, EAEko ospitale publikoetan eta pribatuetan 2013an alta jaso zuten pazienteen datuak aztertu ditugu. Informazioa bi taldetan banatu dugu, paziente horiei eman zaien arreta motaren arabera:

- **Ospitaleratze arrunta:** egun batetik gorako egonaldia duten ospitaleratzeei buruzko altak (alta-data/ospitaleratze-data>0), beste ospitale baterako lekualdatzeak, borondatezko altak eta heriotzak jasotzen ditu.
- **Prozesu ambulatorioak:** egun batetik beherako egonaldia duten ospitaleratze programatuei buruzko altak jasotzen ditu (alta-data/ospitaleratze-data=0), eta ez dira izan behar ez beste ospitale baterako lekualdatzeak, ez borondatezko altak, ezta heriotzak ere.

Txostena egiteko, ondoko aldagai hauek erabili ditugu: batetik, Ospitaleetako Alten Erregistroaren egitura ezartzen duten arauetan adierazitakoak^{1,2} eta, bestetik, eskuliburu teknikoan⁴ jasota daudenak. Jasotako informazioarekin, ondoko aldagai garrantzitsu hauek landu ditugu, horiek aztertzeari ekiteko:

- **Batez besteko egonaldia.** Egonaldikopuruaren eta alta-kopuruaren arteko zatidura da.
- **Erabilera-tasa.** Urtean 1.000 biztanleko ematen den alta-kopurua da. Izendatzaile gisa, 2013rako zenbatetsitako biztanleria erabili da,

Los datos analizados corresponden a los de los pacientes dados de alta en los hospitales públicos y privados de la CAPV en el año 2013. La información se ha categorizado en dos grupos, de acuerdo con el tipo de asistencia:

- **Hospitalización convencional:** incluye las altas correspondientes a ingresos con una estancia superior a un día (fecha de alta-fecha de ingreso>0), las debidas a traslados a otros hospitales, las altas voluntarias y las defunciones.
- **Procesos ambulatorios:** correspondiente a altas de ingresos programados con estancia menor de un día ((fecha de alta-fecha de ingreso=0), que no hayan sido traslados a otro hospital, no sean altas voluntarias ni defunciones.

Las variables utilizadas son las recogidas en las normas que establecen la estructura del RAH^{1,2}, y el manual técnico que los desarrolla⁴. A partir de la información recogida se han elaborado, para su análisis, los siguientes indicadores relevantes:

- **Estancia media.** Cociente entre el número de estancias y el número de altas.
- **Tasa de utilización.** Es el número de altas por cada 1.000 habitantes/año. El denominador utilizado ha sido la población

⁴ Euskadiko ospitaleetako alten datuen oinarritzko bildumaren erregistroarako eskuliburu teknikoa, 2010. Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila. Manual Técnico del Registro del CMBD de las altas hospitalarias de Euskadi, 2010. Departamento de Sanidad y Consumo, Gobierno Vasco.

Eustat erakundearen 2006ko eta 2011ko biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistiketan oinarrituta estrapolazio lineala eginda.

- **Tasen arrzoia.** Bi erebilera-tasen erlazioa da.

Datuen kalitatea ebaluatzeko, nahitaezko aldagai administratiboan eta klinikoan betetze-maila hartzen da aintzat (ospitaleratze mota, alta mota, bizilekua, diagnostiko nagusia, eta abar), eta, zeharka, adierazle jakin batzuk: diagnostikoen batez bestekoa, prozeduren batez bestekoa, eta abar. «ospitaleratze-uneko diagnostikoa» (POA⁵) adierazlearen betetze-maila ere ebaluatu da.

Datuen azterketa, funtsean, deskribatzailea da. Gehienbat oinarrizko aldagai administratiboak hartu ditugu kontuan, baita diagnostiko nagusia eta lehenengo prozedura kirurgikoa ere. Kasu guztietan, EAEko egoiliarren altak izan ditugu ardatz. Hori guztia egiteko, SAS 9.4 (4) pakete informatikoa erabili dugu.

Diagnostiko nagusian erregistratutako patologien maiztasunak aztertu baino lehen, taldekatu egin ditugu Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 9. berrikuspeneko Aldaketa Klinikoa izenekoaren (GNS-9-AK) (1) lehenengo hiru digituak kontuan hartuta. Prozeduren kasuan, Agency of Healthcare Research and Quality (AHRQ-USA) landutako CCS (2) prozeduren multzokatzailea erabili dugu. Aurrez, kirurgia handiko prozedurak hautatzeko, Osakidetzako

estimada para 2013, obtenida por extrapolación lineal a partir de las estadísticas de población y vivienda (Eustat) de 2006 y 2011.

- **Razón de tasas.** Es el cociente entre dos tasas de utilización.

La evaluación de la calidad de los datos se ha considerado el grado de cumplimiento de las variables administrativas y clínicas obligatorias (tipo de ingreso, tipo de alta, lugar de residencia, diagnóstico principal, etc.) y, de forma indirecta, por determinados indicadores: media de diagnósticos, media de procedimientos, etc. También se ha evaluado el grado de cumplimiento del indicador de diagnóstico presente al ingreso (POA⁵).

El análisis de los datos es básicamente descriptivo, considerando principalmente las variables administrativas básicas, junto con el diagnóstico principal y primer procedimiento quirúrgico. Para su realización se ha utilizado el paquete informático SAS 9.4 (4)

La frecuencias de diagnósticos principales, se ha realizado agrupados considerando los tres primeros dígitos, correspondientes a la Clasificación Internacional de Enfermedades, 9ª revisión, Modificación Clínica (CIE-9-MC) (1). En el caso de los procedimientos más frecuentes, se ha utilizado el agrupador de procedimientos CCS (2), de la Agency of Healthcare Research and Quality (AHRQ-USA). Previamente, para la selección de procedimientos de cirugía mayor, se

⁵ POA: "Present on Admission"

Osasun Laguntzako Zuzendaritzak eginiko multzokatzaile bat erabili dugu.

Ospitaleratze arrunteko kasuei dagokienez azterketa xehea egin badugu ere, prozesu ambulatorioetan kirurgia handi ambulatorioko kasuak bakarrik aztertu ditugu. Azken arreta mota horretan, gainerako prozesuen deklarazioa (kirurgia txikia, eguneko ospitale medikoa, 0 egonaldiko premiazko ospitaleratzeak, eta abar) ez dago EAEn behar beste finkatuta, eta, beraz, oraingoz ezin ditugu emaitza xeheak eskaini. Bi kasuetan EAeko egoiliarren altak aztertu dira, bereziki.

1. eranskinean, alten maiztasunak eta batez besteko adinaren nahiz egonaldien ezaugarriak ageri dira, sexuaren arabera eta ISHMT (3) diagnostikoko sailkapenaren arabera multzokatuta.

ha utilizado un agrupador elaborado por la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud.

Mientras se realiza un análisis detallado de los casos de hospitalización convencional, en los procesos ambulatorios únicamente se analizan los casos de cirugía mayor ambulatoria. En esta último tipo de asistencia, la declaración del resto de procesos (cirugía menor, hospital de día médico, ingresos urgentes con estancia 0, etc.) no está todavía lo adecuadamente consolidada en la CAPV como para obtener resultados suficientemente precisos. En ambos casos el análisis se centra en las altas de personas residentes en la CAPV.


En el Anexo 1 se incluyen las frecuencias y las características edad y estancia media, de las altas agrupadas por sexo y de acuerdo con la clasificación ISHMT (3) de diagnósticos.

1. Datu orokorrak

2013an, EAEn 322.058 ospitaleratze-alta erregistratu ziren guztira; 2012an bezalatsu, beraz (319.874 alta). 1. irudian ikus daitekeen bezala, zifra hori azken bost urteetan izandako alten bitartean beheko marjinan dago.

1. Datos Generales

El número total de altas hospitalarias registradas en la CAPV durante el año 2013 fueron 322.058, similar al del año 2012 (319.874 altas). Como puede observarse en la figura 1, este número se sitúa en el margen inferior del rango de altas observado en los cinco últimos años.



1. irudia. 2009-2013 urteak bitartean guztira izandako alten kopurua eta kopuru horretatik sare publikoko (Osakidetza) eta sare pribatuko ospitaleetan izandako alten ehunekoak.

Figura 1. Número de altas totales y distribución porcentual entre hospitales de la red pública (Osakidetza) y la red privada entre los años 2009 y 2013

2013. urtean, alten % 97,1 akutuen ospitaleetan erregistratu ziren; gainerako % 3,0, aldiz, egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleetan. Sare publikoak alten % 77,6ko ekarpena egin zuen akutuen ospitaleen kasuan, eta % 88,4koa kronikoen ospitaleetan (1. taula).

Ospitaleratze ambulatorioak (alten % 25,0) pisu handiagoa hartzen ari dira ospitale pribatuetan, ospitale publikoetan baino (2. irudia).

Ospitale publikoetan, alten % 1,7 EAEko egoiliar ez diren pertsonenak izan dira (2. taula). Ehuneko hori handiagoa izan da ospitale pribatuetan, kasuen % 5,7ra


En el año 2013, el 97,1% de las altas se registraron en los hospitales de agudos, mientras que 3,0% restante se hicieron desde los de media-larga estancia. A su vez, la red pública registró el 77,6% de las altas en hospitales de agudos, porcentaje se incrementó hasta el 88,4% de los hospitales de crónicos (tabla 1).

La hospitalización ambulatoria, que representó el 25,0% de las altas, tiende a tener un mayor peso en los hospitales privados que en los públicos (figura 2).

El 1,7% de las altas de los hospitales públicos (tabla 2) corresponden a no residentes en la CAPV. Este porcentaje es mayor en los hospitales privados,

iritsita.

alcanzando un 5,7% de los casos.



2. irudia. Alten banaketa, guztira eta arreta motaren arabera.

Figura 2. Distribución de altas totales y por tipo de asistencia

Datuen kalitateari dagokionez, eta, zehazkiago, EAEko egoiliarren ospitaleratze arrunteko alden kasuei erreparatuta, hautatutako nahitazko aldagaien betetze-maila ageri da 3.1. taulan (pazientearen udalerrria, adina, diagnostiko nagusia), baita hautazko aldagaia den «ospitaleratze-unekeko diagnostikoaren» (POA) betetze-maila ere. Ikusten denez, balio absenteak 2012. urtekoak baino pixka bat altuagoak dira sare pribatuko ospitaleetako nahitazko aldagaietan: 100 vs 77 pazientearen udalerriri dagokionez; 9 vs 50 adinari dagokionez; 97 vs 29 diagnostiko nagusiari dagokionez. Hala ere, absentzia-ehunekoa % 0,5etik beherakoa da aldagai guztietan.


POA deklaratzeko aukerakoa den arren, kasuen %98,1ean egiten da; 2012an bezalatsu. Osakidetzako ospitaleetan, kasuen % 100 komunikatzen da; sare pribatuan, aldiz, kasuen % 88,9. Azken kasu horretan, handia da ospitaleen arteko aldea: azterketa egiteko aintzat hartu ditugun 18 ospitaleetatik 12k

En cuanto a la calidad de los datos, y en concreto de los casos de altas de hospitalización convencional en residentes en la CAPV, en la tabla 3.1. se presenta el grado de cumplimentación de cuatro variables obligatorias (municipio de residencia, edad, diagnóstico principal), así como de la variable optativa "diagnóstico presente al ingreso" (POA). Se observan algunos valores ausentes en las variables obligatorias en los hospitales de la red privada, ligeramente superiores a los observados en el año 2012: 100 vs. 77, para la residencia; 9 vs 50, para edad; 97 vs 29 en diagnóstico principal. No obstante en todos los casos la ausencia de datos es inferior al 0,5%.

Aunque la declaración del POA es optativa, está presente en el 98,1% de los casos; cifra similar a la del año 2012. Esta declaración es del 100% en el caso de la red pública, frente al 88,9% en la privada. En este último caso, las diferencias entre hospitales es importante: de los 18 hospitales

kasuen % 100ean eman dute datu hori, 3 ospitalek alden % 85-90ean, eta gainerako 3 ospitaleek ez dute behin ere erregistratu. POAn jasotako informazio motari erreparatuz gero, Osakidetzako sareko ospitaleetan % 0,7en kasu baino gutxiago datu hori ez dagoela («ez»), edo ezezaguna edo zalantzazkoa dela, adierazten da. Ospitale pribatuetan, ehuneko horiek altuagoa da. Dena den, eta goian aipatzen den moduan, oso heterogeneotasun handia hauteman dugu ospitaleen hauen artean. Aurreko urteetako txostenetan adierazten zen bezala, beharrezkoa da aldagai hori jasotzeko estandarizazioa hobetzeko ahalegina egitea.

privados existentes, 12 aporta este dato en el 100% de las altas, en otros 3 se da en el 85-90%, mientras que en los 3 restantes no se registra en ningún caso. En cuanto a la categoría de POA declarado, el porcentaje de casos en los que se indica que no existe ("no"), o que es desconocido o dudoso es bajo, en conjunto inferior al 0,7% en los hospitales de la red de Osakidetza. En los privados es superior, pero al igual que en su cumplimentación, se observa una distribución bastante heterogénea entre hospitales. Tal como ya se indicaba en informes de años precedentes sería necesario hacer un esfuerzo para mejorar la estandarización de la recogida de esta variable.



3. irudia. Ospitale mota bakoitzean erregistratutako diagnostikoen kopurua.

Figura. 3 Número de diagnósticos registrados en los distintos tipos de hospitales

3-2 taulan, ospitale publiko zein pribatuetan alta jaso duten EAeko egoiliar diren pazienteen diagnostikoei eta prozedurei buruzko datuak laburbiltzen dira. Modu orokorrean, alta bakoitzeko 5,18 diagnostiko eta 1,79 prozedura erregistratu dira; hala ere, alde handiak daude ospitale moten artean. Alde horiek 3. irudian ageri dira,

En la tabla 3-2 se resumen los datos relativos a diagnósticos y procedimientos realizados a los pacientes, residentes en la CAPV, dados de alta en los distintos hospitales. De forma general se registran 5,18 diagnosticos por alta y 1,79 procedimientos, pero con importantes diferencias entre tipos de

era grafikoan adierazita. Diagnostikoen kopurua handiagoa da egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleetan, baita sare publikoko ospitaleetan ere.

Erregistratutako prozedurei dagokienez, sare publikoko akutuen ospitaleetan sare pribatukoetan baino diagnostiko gehiago egiteko joera dagoela ikus daiteke: 1,88 vs 1,38. Diferentzia horiek hala prozedura kirurgikoetan nola ez-kirurgikoetan hautematen dira; dena den, diferentzia horiek are nabarmenagoak dira ez-kirurgikoen kasuan (2,22 vs 1,65). Era berean, tratamendu kirurgikoak edo ez-kirurgikoak dituzten pazienten ehunekoetan diferentziak daudela ikus daiteke, bi sareetako ospitaleetan. Hala, sare pribatuan handiagoa da prozedura kirurgikoak izan dituzten pazienteen ehunekoa (%66,89 vs %44,58), baina alde hori alderantzikatu egin da ez-kirurgikoen kasuan (%23,44 vs %50,10).

Aurreko paragrafoetan, agerian gelditu dira akutuen ospitaleen eta egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleen artean dauden diferentziak; diferentzia horiek, azken batean, ikuspuntu klinikoan eta asistentzian dituzten aldean isla direla esan daiteke. Hori dela eta, bi ospitale mota horiek bereiz aztertu behar izan ditugu

2. Akutuen ospitaleak

2.1. Ospitaleratze arrunta

Lehenik, ospitaleratze arruntean alta jaso duten pazienteen adina eta

hospital. Estas diferencias se muestran de forma gráfica en la figura 3. Se aprecia un mayor número de diagnósticos en las altas de los hospitales de media-larga estancia, así como en los de la red pública.

En cuanto a los procedimientos registrados, también se observa una tendencia a un mayor número de diagnósticos en los hospitales de agudos de la red pública que en los de la privada: 1,88 vs 1,38. Estas diferencias se dan tanto respecto a los procedimientos quirúrgicos como no quirúrgicos, aunque son más marcadas (2,22 vs 1,65) en el caso de los no quirúrgicos. Igualmente se observan diferencias en el porcentaje de pacientes de ambas redes con tratamientos quirúrgicos o no quirúrgicos, siendo mayor el porcentaje de pacientes de la red privada con procedimientos quirúrgicos (66,89% vs 44,58%), mientras que esta diferencia que se invierte en el caso de no quirúrgicos (23,44% vs 50,10%).

En los párrafos previos se han puesto de manifiesto las diferencias existentes entre los hospitales de agudos y de media-larga estancia, reflejo de las que tienen desde el punto de vista clínico y asistencial que desarrollan, por ello a continuación se realizara un estudio más pormenorizado de cada uno de estos dos tipos de hospitales.

2. Hospitales de agudos

2.1. Hospitalización convencional


El primer aspecto que se ha analizado han sido la edad media y la estancia

egonaldia aztertu ditugu. 4. taulan azaltzen diren datuetatik ondoriozta daitekeenez, adinaren eta egonaldiaren batez bestekoak handiagoak izan dira sare publikoko ospitaleetan, sare pribatukoetan baino; diferentziak oso esanguratsuak dira, gainera ($p < 0,001$).

Ospitaleratze mota ebaluatzean (4. irudia), ikusi dugu Osakidetza sarean 3/1 erlazioa dagoela premiazko ospitaleratzeen eta ospitaleratze programatuen artean, eta erlazio hori alderantzikatu egiten dela ospitale pribatuetan.

media de los pacientes con alta de hospitalización convencional. Como se desprende de los datos que se exponen en la tabla 4, la edad y estancia medias son mayores en los hospitales de la red pública, respecto a los de la red privada, diferencias que son altamente significativa ($p < 0,001$).

Igualmente, se observan diferencias en el tipo de ingreso (figura 4). El caso de los públicos la relación entre urgentes y programados es aproximadamente de 3/1, relación que se invierte en el caso de los privados



4. irudia. EAEko egoiliarren ospitaleratze arrunt motaren banaketa, ospitale publikoetan eta pribatuetan.

Figura 4. Distribución del tipo de ingreso en hospitalización convencional de residentes de la CAPV, en hospitales públicos y privados.

Alta motari dagokionez (5. taula), eredu berdintsua da bi ospitale motetan. Hala ere, ospitale publikoetan, pribatuetan baino txikiagoak izan dira etxera joateko alden ehunekoa (92,8 vs 95,5); aldiz, handiagoak dira beste ospitale batera joateko alden ehunekoa (2,89 vs 1,48), egoitza sozialera joateko alden ehunekoa (0,25 vs 0,02), eta

Respecto al tipo de alta (tabla 5), el patrón es similar en ambos tipos de hospitales. No obstante, en los hospitales públicos el porcentaje de las altas a domicilio (92,8 vs 95,5) es inferior al de los privados; por el contrario son superiores los porcentajes de altas a otro hospital (2,89 vs 1,48), a residencia social (0,25

heriotzagatiko altak (%3,39 vs %2,17).

Ospitaleratze arrunten kasuan alta erregistratzen duen zerbitzuari buruzko informazioa 6. taulan dago banakatuta. Alten kopuru handiena duen zerbitzua «barne-medikuntza» da (%14,5); jarraian, «traumatologia», «kirurgia orokorra eta digestio-aparatukoa» eta «obstetrizia/ginekologia» daude (%12,9, %12,5 eta %12,1, hurrenez hurren). Alten guztizkoan %10etik gorako ehunekoak dituzten zerbitzu bakarrak dira horiek. Lau zerbitzu horien nagusitasun kuantitatiboa bai ospitale publikoetan, bai pribatuetan hautematen da, rankiga aldatzen bada ere. Ospitale publikoetan, «barne-medikuntza» eta «obstetricia/ginekologia» zerbitzuetan erregistratzen dira alta gehien; sare pribatuan, aldiz, «traumatologian» eta «kirurgia orokorra eta digestio-aparatukoan».

Alta jaso duten pazienteen sexuari eta adinari dagokienez (7. taula), bi sexuetan alten kopurua antzekoa dela ikus daiteke. Hala ere, aldeak daude adinaren arabera banaketan, handiagoa baita 15-29 eta 30-49 urte bitarteko emakumezkoen taldean –hots, ugalkortasun-aldian dauden emakumezkoetan–, eta baxuagoa adin horietatik beherako eta gorako taldeetan. Sexuen arteko aldeak handiagoak dira 1.000 biztanleko ospitaleratze-tasak aztertzen direnean; batez ere, 50 urtetik gorako taldeetan (5. irudia).


Ospitaleratutako pertsona bakoitzeko alten batez besteko kopurua eta erabilera-tasa (1.000 biztanleko), ospitale publikoetan eta pribatuetan, 8. taulan daude jasota.

vs 0,02) y por fallecimientos (3,39 vs 2,17).

La información relativa al servicio que registra el alta, en los casos de hospitalización convencional, se desglosa en la tabla 6. El servicio con una mayor número de altas es “medicina interna” (14,5%), seguido de “traumatología”, “cirugía general y del aparato digestivo” y “obstetricia-ginecología” (12,9, 12,5 y 12,1%, respectivamente). Son los únicos que individualmente superan el 10% de los casos. La preponderancia de estos cuatro servicios se da tanto en los hospitales públicos como privados, si bien el ranking varía. En los públicos son los servicios de “medicina interna” y “obstetricia-ginecología” los que registran un mayor número de altas, mientras que en los de la red privada son “traumatología” y cirugía “general y del aparato digestivo”.

En cuanto al sexo y edad de los pacientes dados de alta (tabla 7), en ambos sexos se observa un número similar de altas. Sin embargo, se aprecian diferencias en la distribución por edades, siendo más elevado en mujeres en los grupos de edad de 15-29 y 30-49, es decir en el período de fertilidad, e inferior tanto por debajo como por encima de estas edades. Estas diferencias son más acusadas cuando se analizan las tasas de hospitalización, por cada 1.000 habitantes, en especial en los grupos de edad mayores de 50 años (figura 5).

El número medio de altas por persona hospitalizada y la tasa de utilización (por 1.000 habitantes), en hospitales públicos y privados se muestra en la tabla 8.




5. irudia. Tasak, 1.000 biztanleko, adinaren eta sexuaren arabera, EAEko egoiliarren ospitaleratze arrunten kasuetan.

Figura 5. Tasas, por 1.000 habitantes, por grupos de edad y sexo, en casos de hospitalización convencional de residentes en la CAPV.

Alten kopuruak, pertsona bakoitzeko alten kopurua eta erabilera-tasak (altak 1.000 biztanleko). 8. taulan laburbiltzen dira; ospitale publikoen eta pribatuen, pazientea bizi den lurralde historikoaren, eta sexuaren arabera banatuta ageri dira. Pertsona bakoitzeko alten kopurua zertxobait handiagoa da gizonezkoetan emakumezkoetan baino, bi sareetan. Erabilera-tasan ere, lurraldeen artean aldeak daudela ikus daiteke. Oro har, erabilera-tasa txikiagoa da Bizkaian (96,8/1.000 biz.), Araban eta Gipuzkoan baino (108,9 eta 109,6/1.000, hurrenez hurren); azken bi lurralde horietan, nahiko antzekoak dira tasak. Aldeak daude bi ospitale-sareen erabileran ere: sare publikoa Araban erabiltzen da gehien; ondoren Gipuzkoan, eta gero Bizkaian.

Las altas totales, el número de altas por persona y las tasas de utilización (altas por cada 1.000 habitantes). se resumen en la tabla 8, diferenciadas entre hospitales públicos y privados, territorio histórico de residencia del paciente y su sexo. El número de altas por persona es algo superior en hombres que en mujeres, en ambas redes. También se observan diferencias en la tasa de utilización entre territorios. De forma global son los residentes en Bizkaia los que tienen una menor tasa de utilización (96,8/1.000 hab.) que en resto de los territorios, Álava y Gipuzkoa, que presenta tasas similares (108,9 y 109,6/1.000 hab., respectivamente). Igualmente se dan diferencias en la utilización de las dos redes de hospitales: en Álava la tasa de utilización de la red pública es más alta de los tres TTHH; seguida de Gipuzkoa y Bizkaia.



6. irudia. EAEko egoiliarren ospitaleratze arrunteko talde diagnostiko ohikoenak, lurraldearen eta sexuaren arabera. Emakumezkoen kasuan, ez dira sartu «Haurdunaldi, erditze eta puerperioko konplikazioak» taldeko altak.

Figura 6. Grupos diagnosticos más frecuentes en hospitalización convencional de residentes de la CAPV, según territorio y sexo. En el caso de la mujeres no se han incluido las altas de grupo “Complicaciones de gestación, parto y puerperio”.

Talde diagnostikoen araberrako altak, gizonezko nahiz emakumezkoenak, 9.11 eta 9.2. tauletan ageri dira, hurrenez hurren. «haurdunaldi, erditze eta puerperioko konplikazioak» taldea dagoenez, eta emakumezkoen alden artean talde ohikoena hori denez, zaila suertatzen da sexuen arteko gainerako diagnostiko-taldearen eragina alderatzea. Hori saihesteko, 6. irudian diagnostiko-talde komunaren eragina agertzen da, ehuneko gisa, alta guztiekiko; «haurdunaldi, erditze eta puerperioko konplikazioak» taldekoak kontuan hartu gabe.

6. irudian ikus daitekeenez, zirkulazio-aparatuko, digestio-aparatuko eta arnas-aparatuko diagnostikoen ehunekoa handiagoa da gizonezkoetan; aldiz, lesioen eta pozoiduren, neoplasiaren eta aparatuen genitourinarioko diagnostikoak ohikoagoak dira emakumezkoetan. Bestetik, Bizkaian

Las altas por grupo diagnóstico, en hombres y mujeres, se muestran en las tablas 9.1. y 9.2., respectivamente. La existencia del grupo de “complicaciones de embarazo, parto y puerperio”, que además es el grupo con un mayor número de altas en las mujeres, dificulta la comparación de la incidencia del resto de grupos de diagnóstico entre ambos sexos. En la figura 6, para evitarlo, se representa la incidencia de los grupos diagnósticos comunes, como porcentaje en relación al número de altas de sin considerar “complicaciones de embarazo, parto y puerperio”.

En esta figura 6 se aprecia que el porcentaje de diagnósticos de los aparatos circulatorio, digestivo y respiratorio tienden a ser mayores entre los varones, mientras que los correspondientes a lesiones y envenamientos, neoplasias y los del aparato genitourinario son más

izan dira digestio-aparatuaren eta neoplasien inguruko prozesu gehienak.

Diagnostiko nagusian sartzen diren prozesuen maiztasunak 10. taulan daude jasota, Osakidetza-sarean dagokonez. Ohikoenak «bihotz-gutxiegitasuna» eta «osteoartrosia eta antzeko gaixotasunak» dira. Nabarmentzekoa da prozesu horietako bigarreneko kasuak ugaritu egin direla, % 24 areagotu baitira 2012ko datuekiko; gehienbat, emakumezkoen kasuak % 67 igo direlako. Era berean, esan beharra dago ohikoenak diren prozesuen artean «Asma» sartu dela; aurreko urtean ez zegoen halakorik.

Ospitale pribatuen kasuan, datu horiek aztertuta (11. taula), ikusten da «belauneko barne-arazoak» eta «osteoartrosia eta antzeko gaixotasunak» direla ohikoenak. Azpimarratu behar da sare pribatuan ohikoenak diren 25 prozesuen artean daudela «maskuriaren neoplasia gaiztoa» eta «uretrako eta gernubideetako bestelako alterazioak».

Bi sareak batera aztertzen baditugu (11. taula), talderik ohikoenak bi hauek ditugu: «osteoartrosia eta antzeko gaixotasunak» lehenik, eta «kolelitiasia» ondoren. Era berean, «barne-medikuntza» eta «traumatologia» dira alta gehien dituzten zerbitzuak (12. Taula).

13.1. eta 13.2. tauletan, ospitaleratze arrunteko lehendabiziko prozedura kirurgikoko hamar kategoría ohikoenak daude jasota (CCSren sailkapenaren arabera kodetuta), sexuaren arabera antolatuta. Ospitale publikoetako datuak (13.1, taulan) eta

frecuentes en las mujeres. Por otro lado, destaca la mayor incidencia de procesos relacionados con el aparato digestivo y de neoplasias en Bizkaia.

En lo referente a los procesos más frecuentes en el diagnóstico principal en los hospitales de la red de Osakidetza, se recogen en la tabla 10. La "insuficiencia cardíaca" y la "osteoartrosis y enfermedades afines" son los procesos con mayor número de diagnósticos principales. Destaca, en relación a 2012, el incremento de los casos del segundo de estos procesos, con un incremento del 24%, siendo del 67% en las mujeres. A resaltar, igualmente, la inclusión entre los procesos más frecuentes del "Asma" no presente en el año previo.

Por lo que se refiere a los datos de hospitales privados, recogidos en la tabla 11, los diagnósticos más frecuentes son el "transtorno interno de rodilla" y la "osteoartrosis y enfermedades afines". Apuntar que en esta red privada aparecen en los 25 procesos más frecuentes la "neoplasia maligna de la vejiga" y "otras alteraciones de uretra y vías urinarias".

considerando conjuntamente las dos redes (tabla 11) sería la "osteoartrosis y enfermedades" afines el proceso más frecuentemente, seguido de la "colelitiasis". A su vez, "medicina interna" y "traumatología" serían los servicios con un mayor número de altas (tabla 12).

En las tablas 13.1 y 13.2. se presentan las categorías más frecuentes del primer procedimiento quirúrgico, codificados de acuerdo a la clasificación de la CCS, observados en casos de hospitalización convencional, y clasificados por sexo. Se exponen por

pribatuetakoak (13.2. taulan) bereizita daude. Ospitale publikoetan, bi prozedurarik ohikoenak erditzearekin. zerikusia dutenak eta «aldakaren ordezkapen partziala edo erabateko ordezkapena» dira. Azken prozedura hori da, gainera, gizonezkoetan ohikoena. Emakumezkoetan, berriz, erditzearekin zerikusia duten horiez gain, «kolezistektomia» da ohikoena.

Ospitale pribatuetako prozedura kirurgikoei dagokienez, «artroskopia» eta «iztai-hernia eta femoral konpontzea» dira prozedurarik ohikoenak. Prozedura horiek, bestalde, gizonezkoetan dira ohikoen. Emakumezkoetan ohikoenak, berriz, «larruazaleko eta bularreko bestelako prozedura terapeutikoak» dira, baita erditzearekin zerikusia duten prozedurak ere.

2.2. Kirurgia handi ambulatorioa

14. taulan, ospitaleratze ambulatorioko alden datuak laburbildu ditugu, baita kirurgia handi ambulatoriokoak (kha) ere. Kasu honetan ere, ospitale publikoetako alden batez bestekoa ospitale pribatuetakoa baino handiagoa da (61,4 vs 57,7; $p < 0,001$).

Kirurgia handi ambulatorioko hamar prozedura kirurgiko ohikoenak (lehenengo prozedura kirurgiko gisa erregistratutakoen artean) 15. taulan ageri dira, CCS sailkapenaren arabera taldekatuta. Bi ospitale mota horietan, publikoetan (15.1. taulan) eta pribatuetan (15.2. taulan), prozedurarik ohikoenak «kristalinoko eta kataratetako prozedurak» dira. Osakidetzaren sareko ospitaleetan,

separado los correspondientes a hospitales públicos (en la tabla 13.1) y privados (tabla 13.2.). Los dos procedimientos relacionados con el parto, seguidos por la “sustitución total o parcial de caderas”, son los más frecuentes en los hospitales públicos. Este último es también el más frecuente en los varones, mientras que en las mujeres, tras los citados relacionados con el parto, la “colecistectomía” es la más frecuente.

En cuanto a los procedimientos quirúrgicos en hospitales privados, la “artroscopia” y la “reparación de hernia inguinal y femoral” son los procedimientos más frecuentes. Son también los más repetidos en los hombres, mientras que “otros procedimientos terapéuticos sobre piel y mama”, junto con los relacionados en el parto, los más frecuentes en las mujeres.

2.2. Cirugía mayor ambulatoria

En la tabla 14 se resumen los datos de altas en hospitalización ambulatoria, y de aquellos con cirugía mayor ambulatoria (cma). Tal como se observa en la misma, la edad media de las altas en hospitales públicos es mayor a la de los hospitales privados (61,4 vs 57,7; $p < 0,001$).

Los diez procedimientos quirúrgicos más frecuente, entre los registrados como primer procedimiento quirúrgico, en cirugía mayor ambulatoria se recogen en la tabla 15., agrupados de acuerdo con la clasificación CCS. En ambos tipos de hospitales, públicos (tabla 15.1.) y privados (tabla 15.2), los procedimientos más frecuentes son los “procedimientos sobre cristalino y

prozedura kirurgikoen erdiak gutxi gorabehera (%48,5) begietan eta inguruetan egiten diren kirurgiak dira.


cataratas'. En los hospitales de la red de Osakidetza, casi la mitad de los procedimientos quirúrgicos (48,5%) corresponden a cirugías realizadas en ojos y anexos.

3. Egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleak

Batez besteko adina eta egonaldia, sare publikoko eta pribatuko egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleetakoak, 16. taulan banakatu dira. Batez besteko adina bi sareetan antzekoa bada ere (80,4 urte; $p>0,05$), egonaldia luzeagoa da ospitale pribatuetan, publikoetan baino (34,1 vs 17,1; $p<0,001$).

3. Hospitales de media-larga estancia

La edad y estancia medias en los hospitales de media-larga estancia de las redes pública y privada se desglosan en la tabla 16. Mientras que la edad media es similar en ambas redes (80,4 años; $p>0,05$), la estancia en los hospitales privados es más prolongada que en los públicos (34,1 vs 17,1; $p<0,0001$).



7. irudia. EAEko egoiliarren ospitaleratze arrunteko altak, adinaren eta sexuaren arabera taldeetan banatuta, egonaldi ertaineko/luzeko ospitale publikoetan eta pribatuetan.

Figura 7. Distribución por grupos de edad y sexo de las altas de hospitalización convencional de residentes de la CAPV, en hospitales públicos y privados de media-larga estancia.

Ospitale horietako ospitaleratze-altak adin-taldean arabera sailkatuta ageri dira 7. irudian. Ikusten denez, ospitaleratzeen ehuneko handiena 80 urte bitarteko gizonezkoiei dagokie, baina joera hori alderantzikatu egiten da adin horretatik aurrera. Hala ere, bi


La distribución de la edad, por grupos de edad, de las altas hospitalarias en estos hospitales se muestra en la figura 7. Se observa un mayor porcentaje de hospitalización en los hombres hasta los 80 años, invirtiéndose la tendencia a partir de

sexuetan, 80 eta 89 urte bitarteko adin-tarte da ohikoena.

8. irudian ikus daitekeenez, egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleen artean alde handiak daude ospitaleratze motari dagokionez. Sare pribatuan, ospitaleratzeen % 100 programatuak izaten dira; aldiz, Osakidetza ospitaleetan, ehuneko hori % 39,7ra jaisten da.

esta edad. No obstante en ambos sexos, la franja de edad entre 80 y 89 años la más frecuente.

Existen, igualmente, (figura 8) existen diferencias importantes en relación al tipo de ingreso entre hospitales de media larga estancia. Mientras en los de la red privada el 100% de los ingresos son programados, este porcentaje se reduce al 39,7% en los hospitales de Osakidetza.



8. irudia. EAEko egoiliarren ospitaleratze arrunteko ospitaleratze mota, egonaldi ertaineko/luzeko ospitale publikoetan eta pribatuetan.

Figura 8. Tipo de ingreso en hospitalización convencional, en residentes de la CAPV, en los hospitales públicos y privados de media-larga estancia.

Bi sareen artean aldeak daude, alta motari dagokionez (16. taula). Bi kasuetan alden ehuneko handiena «etxeko altak edo etxeko ospitaleratzeak» atalekoak badira ere, bien arteko aldeak nabarmenak dira, sare publikoan kasuen % 70,4 baitira eta sare pribatuan kasuen % 44,7. Azken horretan, ordea, helburu gisa egoitza soziala duten kasu asko daude (% 18,7); sare publikoko ospitaleen kasuan baino askoz ere gehiago (% 3,6). Heriotzagatiko altak bi saretan bigarren alta-mota izan dira, eta antzeagoak bi saretan, % 21,9 Osakidetza eta % 29,1


En el tipo de alta, también se observan diferencias entre los hospitales de las dos redes (tabla 16). Si bien en ambas el mayor porcentaje de altas corresponden a las "a domicilio o hospitalización a domicilio", su importancia relativa es alevada, con un 70,4% de los casos en la red pública y un 44,7 % de los caso en la privada. En esta última, por el contrario, existe un número importante de casos cuyo destino son residencias sociales (18,7%), y sensiblemente superior al de hospitales de la red pública (3,6%). Las altas por fallecimiento, el segundo tipo

pribatuan.

Egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleetako diagnostiko-taldean araberako altak 17. taulan ageri dira, lurralde historikoen (LH) arabera bereizita. 9. irudian, ohikoenak diren diagnostiko-taldeak daude, eta lurralde historikoen artean alde nabarmenak daudela ikus daiteke. Gipuzkoan, «V kodearen» diagnostikoa dutenen alteen ehunekoa oso handia da (% 74,4), eta oso txikia, berriz, arnas-sistemako eta zirkulazio-sistemako gaixotasunen kopurua (% 2,6 eta % 2,5, hurrenez hurren). Aitzitik, arnas-sistemako eta zirkulazio-sistemako diagnostikoen ehunekoa Bizkaian da handien (% 33,8 eta % 16,0, hurrenez hurren); «V kodeko» taldearen kopurua txikiagoa da (% 23,9). Araba tarteko egoeran dago.

en importancia, son más similares entre redes, 21,9% en la de Osakidetza y 29,1% en la privada.

